



Andoaingo Udala



Unai Peñalbok irabazi du Andoaingo Ludotekaren irudi berria finkatzeko lehiaketa

12-18 urteko gazteek 24 proposamen aurkeztu dituzte Sustapen Ekonomiko, Enplegu eta Gazteria sailak martxan ipinitako lehiaketara

Andoaingo Udal Ludotekak badu irudi berria. Sustapen Ekonomiko, Enplegu eta Gazteria sailak martxan ipini duen lehiaketan 12 eta 18 urte bitarteko 24 gazteek parte hartu dute, mota eta teknika ezberdinetako proposamenak aurkeztuz. Hala, Mari Jose Izagirre zinegotziak azaldu duenez "sormen handiko lanak aurkeztu dira, epaimahaiak ez du lan erraza izan, besteak beste, garbia eta ulergarria izatea, kolorearen eta teknika ezberdinen erabilera, eta formatu ezberdinetara egokitzeko gaitasuna izatea baloratu dira".

Gazteria ardurak dituen Izagirre zinegotziak eta Mainer Lainez alkateak ezagutarazi dute Unai Peñalbo Arregi 16 urteko andoaindarra dela lehiaketaren irabazlea, eta bere proposamena izango dela Andoaingo Ludotekari irudia emango diona. Udalbatza aretoan egin den ekitaldian jaso du eskuordulari bat sari moduan.

Izagirrek azaldu du, berarekin batera epaimahaia osatu dutela Eva Pelaez, gazteria teknikariak, eta Aiora Arregi, margoketa eta marrazketa ikastaroen arduradunak. Gogorarazi du "udaletik ludoteka sustatu nahi dela, horretarako irudi bat izatea ezinbestekoa da, besteak beste Belabi kalean ludoteka berria egokitzeko proiektuarekin lanean ari gara, espero dugu epe motzean errealitate bilakatzea, eta Andoaingo gazteek baldintza hobeak dituen udal ekipamendu berri bat izatea".

Unai Peñalbo gana el concurso para elegir la nueva imagen de la Ludoteca de Andoaingo

Jóvenes de entre 12 y 18 años han presentado 24 propuestas al concurso puesto en marcha por el departamento de Promoción Económica, Empleo y Juventud

La Ludoteca Municipal de Andoaingo cuenta con una nueva imagen. En el concurso, que ha puesto en marcha el departamento de Promoción Económica, Empleo y Juventud, han participado 24 jóvenes de entre 12 y 18 años, que han presentado propuestas de diferentes tipos y técnicas. Así, la concejala Mari Jose Izagirre ha explicado que "se han presentado trabajos de gran creatividad, el jurado no lo ha tenido fácil, entre otros, se ha valorado que sean limpios y comprensibles, el uso del color y de diferentes técnicas, y que tengan capacidad de adaptación a diferentes formatos".

La concejala responsable de juventud Izagirre y la alcaldesa Mainer Lainez han dado a conocer que el ganador del concurso es Unai Peñalbo Arregi, andoaindarra de 16 años, y que su propuesta será la que dé imagen a la ludoteca de Andoaingo. En el acto celebrado en el salón de plenos ha recibido un reloj de mano como premio.

Izagirre ha explicado que junto a ella han formado el jurado Eva Peláez, técnica de juventud, y Aiora Arregi, responsable de los cursos de pintura y dibujo. Recuerda que "desde el Ayuntamiento se quiere fomentar la ludoteca, para ello es imprescindible tener una imagen, entre otras cosas estamos trabajando con el proyecto de adecuación de la nueva ludoteca en la calle Belabi, esperamos que a corto plazo se convierta en una realidad, y que las y los jóvenes de Andoaingo dispongan de un nuevo equipamiento municipal con mejores condiciones".